ANGELUKO IKASLEAK
OSOGUNEKO ERAKASKERA
1997-98ko IKASURTEA.

# HOGOITALAUGARREN ERAKASPENA 

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Noiz gerthatu zen uholde hori?
2. Ainitz makur izan zena?
3. Zer makur. Eman xehetasunak!

## (II) UHALDEA. 2

Arraina ere izitu du, zoratu, nahasi osoki uhaldeak; ur zikin, lurrez loditu hartan ezin bizi, ala nork daki zer? Zernahi arrain hil omen da; eskuz bil ahala bazen tokitan, urak apaltzearekin, pentze[15] eta landa zilo batzuetan gelditual.

Amarrain[16], kolaka[17] eta bertze, zaretaraka[18] hatzeman dutenak omen dire, Baionatik Milafrangan harat. Hetarik batek ziola: «ogi ez artho, ez belhar, bertze deus ez badugu zeren igurik aurthen, goazin, egur eta arrain poxi bat bederen dukegunez».

Ez da jostetarik hor. Izigarriko makurrak izan behar dire: ur hegiko UZTA[20] guziak gal. Lurrak oro itsuski zikinduak behere[21] hautan lohi gorriz eta purruskeriaz[22].

Husten, garbitzen, sorho poxi bat bederen emaiteko heinera-[illegible]n[23], zer lana!

Ur hegiz hegi, goiti joanago eta galtze handiagoak ez othe diren, oro beldur.

Itxura guzien arabera, pentze eta landa osoak, lur erabili zenbat ez duke urak ereman burrustan?

Hainbertzetarainoko lur andana derama urak itzulipurdika mendi aldetik itsas alderat. Baionan untziak bethez hartzen zuten hegitik ura, ikusteko zertsu zaukan eta zoin lodi. Erdinkala[24] lur zolarat zohan berehala.

Zonbeit orgatara joan ahal baita hor harat!

Astelehen arratsalde guzian deus garbitasunik ezin jakin da Baionan.

Arratsalde eta gau guzia iraun du izigarriko ur jauste horrek, zernahi zeramala.

Bizi direnen orhoitean egundaino nehork ez duela eskualde [illegible]tan holakorik ikusi, zioten orok.

Elhur urtze edo eurite handi luze batzuen ondotik hirian eta orotan urak atheratzen ba; bainan ez holakorik.

Non zer othe da gerthatu? Biharamun arte, garbitasunik deus ezin jakin dugu.

Chanoine URRUTY 1890 1916

## 33. UKAN. POTENTIEL. Présent (1) Ob. sing. (2) Ob. plur.

| (1) Ob. sing. | | (2) Ob. plur. | |
|---|---|---|---|
| Nik duket | : je peux l'avoir | Nik dituzket | : je peux les avoir |
| Hik dukek/n | : tu peux l'avoir | Hik dituzkek/n | : tu peux les avoir |
| Zuk dukezu | : vs pouvez l'avoir | Zuk dituzkezu | : vs pouvez les avoir |
| Harek duke | : il peut l'avoir | Harek dituzke | : |
| Guk dukegu | : ns pouvons l'avoir | Guk dituzkegu | : |
| Zuek dukezue | : vs pouvez l'avoir | Zuek dituzkezue | : |
| Heiek dukete | : ils peuvent l'avoir | Heiek dituzkete | : etc. |

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Nork daki zer  32. Batek ziola
33. Zenbat ez duke  34. Lur andana derama
35. Ikusteko zertsu zaukan.

### 31. JAKIN. Indicatif. Présent.

| O. Singulier | | Objet pluriel | |
|---|---|---|---|
| Nik dakit | : je le sais | dazkit | = je les sais |
| Hik dakik/n | : tu le sais | dazkik/n | : |
| Zuk dakizu | : vs le savez | dazkizu | : |
| Harek daki | : il le sait | dazki | : |
| Guk dakigu | : ns le savons | dazkigu | : etc |
| Zuek dakizue | : vs le savez | dazkizue | : |
| Heiek dakite | : ils le savent | dazkite | : ils les savent |

### 32. JO. Répliquer, dire. Indicatif.

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Nik diot | : je dis | N. nion | = je disais |
| Hik diok/n | : tu dis | H. hion | = tu disais |
| Zuk diozu | : vs dites | Z. zinion | : vs disiez |
| Harek dio | : il dit | H. zion | : il disait |
| Guk diogu | : ns disons | G. ginion | : ns disions |
| Zuek diozue | : vs dites | Z. zinioten | : vs disiez |
| Heiek diote | : ils disent | H. zioten | : ils disaient |

JO = répliquer, dire est un verbe très défectif à l'heure actuelle. Il n'a ni voix dative, ni impératif, ni éventuel. Au présent et à l'imparfait il ne supporte qu'un complément 3ème personne du singulier.

En conjugaison forte il n'a qu'un sens énonciatif et il perd cette valeur en conjugaison faible, où il veut dire :

FRAPPER, BATTRE, ABOUTIR. SE RESOUDRE etc. etc. (35 significations sans compter celles des 15 terminaisons s'adjoignant à JO.) D'après Abbé Lafitte et Dictionnaire du Père LHANDE.